

IPAR EUSKAL HERRIKO BERTSO-ESKOLETAKO GAZTEEN HIZKUNTZA IBILBIDEAK. GAZTE IDENTITATEAK, HIZKUNTZA MUDANTZAK ETA LEGITIMAZIO PROZESUAK

Tesiaren egilea: Miren Artetxe Sarasola

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Ikus-entzunezko komunikazioa eta Publizitatea

Tesi-zuzendaria: Jone Miren Hernández García eta Josu Amezaga Albizu

Tesiaren laburpena:

Tesian Ipar Euskal herriko (IEHko) bertso-eskoletako gazteen hizkuntza-ibilbideak dira aztergai. Bertso-eskolan dabilzan gazteek euskaraz hitz egiteko joera dute, bai bertso-eskolan, bai lagun artean, eta oro har, baita haien bizitzan aurkitzen edo bilatzen dituzten hautuzko espazioetan ere. Hala, bertsolaritzaren jardueraren inguruan egituratzen den eta euskaraz hitz egiten duen gazte multzo bat elkartzeko duen jarduera-komunitate bati so egin nahi izan zaio, gazteen euskararen erabilerari buruz maiz egiten den galdera bat («zergatik ez dute gazteek euskaraz hitz egiten?») alderantziz pausatuz: zergatik hitz egiten dute gazteek euskaraz?

Gazte hauen subjektibitateen eraikuntza behatzea izan da, beraz, ikerketaren helburua, eta horretarako haien diskurtso-praktikak aztertu dira, nagusiki elkarrizketa sakon erdi-egituratuaren eta landa-lanaren bidez.

Lehen atalean, gazteen hizkuntza-ibilbideen azterketa aurkezten da, arreta jarritzat hizkuntza-mudantzetan, edo, bizitzako aldaketa-garaietan izandako hizkuntza-ohituren mantentzean. Nagusiki eskola-ibilbideko aldaketak hartuz hari gisa, gazteek hizkuntza bat ala bestea erabiltzeari unean-unean emandako zentzuan sakondu nahi izan da, hizkuntza-ohituren mantentzeak edo aldatzeak haien sentipen, uste, balio eta ideiekin izandako harremanean arreta jarritzat. Atal honen ondorio nagusia honakoa da: gazteontzat hizkuntza-ohituren aldaketak, besteak beste, gazte-identitateak eraikitzeko estrategiak direla.

Hurrengo atalean, bertso-eskolari jarduera-komunitate gisa begiraturik, gazteek bertsolaritzaren jiran sortzen eta garatzen dituzten diskurtso eta praktikak aztertzen dira. Izan ere, bertso-eskolan, gazteek bertsotan trebatzeaz gain, elkarrekiko konfiantza-giro bat sortzen dute, lotsari aurre egiten diote, besteen aurrean hitza hartzen dute, elkarrekin gogoetatzen dute, eta, maiz, elkarrekin hartzen dute parte, euskararen aldeko zein gazteen problematikaren inguruko aktibismoan ere. Eta hain

zuzen ere, elementuok guztiok haien gazte-identitatearen eraikuntzarako elementu gisa ulertzen dituzte. Hala, gazteontzat bertso-eskolako jarduera-komunitatea haien gazte-identitateak euskaraz garatzeko eta euskal hiztun-identitateak gazte kulturaren baitan garatzeko gune bat da.

Azken atalean, bereziki begiratu nahi izan diet bertso-eskolako hiztun berrien ibilbideei. Izan ere, hiztunek hizkuntza bat erabiltzeko horretarako legitimitatea sentitzea edo ez sentitzea aldagai garrantzitsua da, eta hiztunen legitimitatea espazio eta denbora jakin batean negoziatzen den heinean, bertso-munduko bi hiztun berrien legitimazio-prozesuetan sakondu nahi izan dut haien hiztun- eta bertso-ibilbideetako bizipenak eta bertso-munduan hiztun berriekiko dauden diskurtsoak aztertuz. Hala, ondorioztatu dut bertso-munduan sozializatzea hiztun berrien legitimaziorako akuilu izan daitekeela, baina baita traba ere: izan ere, bertsolari kanonikoa, lehenik eta behin, hiztun legitimoa da, hots, gaur egungo ideologia nagusien arabera, *hiztun zaharra*.